

KUP-EKO KUDEATZAILEAREN EBAZPENA

DONOSTIAKO KIROLETAKO UDAL PATRONATUKO 9 ADMINISTRARI PLAZA BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA

Donostiako Udal Kirol Patronatuko (aurrerantzean, KUP) gerenteak, 2025eko apirilaren 16ko ebazpenaren bidez, praktiketako funtzionario izendatu zituen hautatutako 9 pertsonak. 2025eko ekainaren 2tik aurrerako ondorioekin.

Bada, jakinarazi behar da 2025eko ekainaren 18an M. Izaskun Larrañaga Querejeta andreak, desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupoaren bidez hautaketa-prozesuan parte hartu zuenak, uko egin ziola hautaketa-prozesuan izangai izateari, eta, beraz, galdu egin zituela prozesu horretan parte hartze-tik eratorritako eskubide guztiak.

Aipatutako izangaia praktiketako funtzionario izendatu zen, eta, horregatik, onartu egin da uko egite hori, praktikaldia ez duela gainditu deklaraturaz, KUPeko gerentearen 2025eko uztailaren 7ko Ebazpenaren bidez (2025eko uztailaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 132. zk.).

Praktiketako izendatutako funtzionarioen ukoei dago-kienz, 10.4 oinarriak honako hau xedatzen du:

“Deialdian ateratako lanpostuak beteko direla bermatzeko, 9.2 oinarriko paragrafoan ezarritako prozedura aplikatu ahal izango du udal organo eskumendunak, bai eta oinarri horretan jasotako baldintzak gertatuz gero ere, kasu hauetan:

a) *Praktiketako funtzionario izendatua izan den izangaia praktika aldia egitera sartzen ez denean, ezinbesteko kasuren bat izan gabe (10.2 oinarriko azken paragrafoa).*

b) *Izangairen batek praktika aldia gainditzen ez duenean (10.3 oinarriko azken paragrafoa)”*

RESOLUCIÓN DE LA GERENCIA DEL PMD

CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN DEFINITIVA DE 9 PLAZAS DE ADMINISTRATIVO/A DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE SAN SEBASTIÁN

El Gerente del Patronato Municipal de Deportes de San Sebastián (en adelante PMD), mediante resolución con fecha del 16 de abril de 2025, nombró como funcionarios/as en prácticas a las 9 personas seleccionadas, con efectos desde el 2 de junio de 2025.

Pues bien, procede dar cuenta de que se ha presentado, el 18 de junio de 2025, por parte de M. Izaskun Larrañaga Querejeta, persona participante en el proceso selectivo a través del cupo de reserva para personas con discapacidad, la correspondiente renuncia a su condición de aspirante en el proceso selectivo, perdiendo de tal manera, todos los derechos derivados de su participación en el mismo.

La citada persona aspirante fue nombrada funcionaria en prácticas, motivo por el cual se ha aceptado dicha renuncia, declarando no superado el periodo de prácticas, por Resolución del Gerente del PMD, de 7 de julio de 2025, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, n.º 132, de 11 de julio de 2025.

Respecto a las renunciaciones de las personas funcionarias nombradas en prácticas, la base número 10.4 dispone lo siguiente:

“A fin de asegurar la cobertura de las plazas convocadas el órgano municipal competente podrá aplicar el procedimiento establecido en el segundo párrafo de la base 9.2, además de en los supuestos recogidos en la citada base, en los siguientes casos:

a) *Cuando algún/a aspirante que ha sido nombrado/a funcionario/a en prácticas no se incorpore a la realización del período de prácticas sin que medie causa de fuerza mayor (último párrafo de la base 10.2).*

b) *Cuando algún/a aspirante no supere el período de prácticas (último párrafo de la base 10.3).”*

Uko egite horri dagokionez, deialdiaren oinarri orokorren 9.2. oinarriak ezartzen duenez, hautatutako funtzionarioek praktiketako edo karrerako – praktikaldirik aurreikusten ez den deialdietan – funtzionario izendatu aurretik uko egiten badute eta 10.4 oinarrian aipatzen diren kasuetan, udal-organo eskudunak, deitutako plazak betetzen direla ziurtatzeko, azken kalifikazioen ondoriozko lehentasun-ordenara jo ahal izango du hautatutako beste hautagai batzuk izendatzeko, eta 15 egun balioduneko epea eman beharko die 9.1 oinarrian zerrendatutako dokumentazioa aurkezteko.

Bederatzigarren oinarrian ezarritakoa betetzeko, bidezkoa da publizitatea ematea eta hautatutako pertsonak baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko epea irekitzea.

Ondorioz, kudeatzaileak, KUPeko estatutuek ematen dizkieten eskumenak erabiliz, honako erabaki hauek hartu ditu:

AKORDIOAK

Lehenengoa.- Txanda irekian hautatutako pertsonaren zerrenda berria onartzea, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez. **(I. eranskina)**

Bigarrena.- I. eranskinean agertzen den pertsonari 15 egun balioduneko epea ematea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, KUPeko Erregistro Orokorrean **hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko** balio duten jatorrizko dokumentuak edo kopia kautoak aurkezteko, bederatzigarren oinarriaren arabera.

Ez da beharrezkoa hautaketa-prozesuan egiaztatu diren edo espediente pertsonalean jasota dauden betekizunak egiaztatzea.

Hautatutako pertsonak honako baldintza hauek egiaztatzeko ditu.

a) Lanpostuari dagozkion eginkizunak normaltasunez betetzea eragozten duen gaixotasunik edo muga

Respecto a la citada renuncia, la base 9.2. de la Bases Generales de la convocatoria, establece que en aquellos casos en los que se produzcan renunciaciones de los/as seleccionados/as antes de su nombramiento como funcionarios/as en prácticas o de carrera - en las convocatorias en las que no se contemple un periodo prácticas- y en los casos a los que se refiere la base 10.4, el órgano municipal competente, a fin de asegurar la cobertura de las plazas convocadas, podrá acudir al orden de prelación resultante de las calificaciones finales para designar otros/as aspirantes seleccionados/ as, debiendo otorgarles un plazo de 15 días hábiles para presentar la documentación enumerada en la base 9.1.

Para dar cumplimiento a lo establecido en la Base Novena, procede dar publicidad y abrir el plazo para que la persona seleccionada acredite el cumplimiento de los requisitos.

En su virtud, el Gerente en uso de las atribuciones que le están conferidas por los Estatutos del PMD, adopta los siguientes

ACUERDOS

Primero.- Aprobar la nueva relación de la persona seleccionada en el turno libre, a través del cupo de reserva para personas con discapacidad **(Anexo I)**

Segundo.- Otorgar a la persona que consta en el Anexo I un plazo de 15 días hábiles a contar desde el día siguiente al de la publicación de la siguiente resolución, para presentar en el Registro General del PMD los documentos originales o las copias auténticas que sirvan **para acreditar los requisitos de participación** en el proceso selectivo, de conformidad con la Base novena.

No es necesaria la acreditación de aquellos requisitos que ya se han acreditado durante el proceso selectivo o que ya constan en el expediente personal.

La persona seleccionada tiene pendiente de acreditar los siguientes requisitos.

a) No padecer enfermedad o limitación física o psíquica alguna que impida el normal desempeño de

fisiko edo psikikorik ez izatea. Horretarako, osasun-azterketa egiteko deituko dira.

b) 9.1.3. Oinarri Orokorrean aipatzen den zinpeko aitortpena edo promesa aurkeztea. Hori aurkezteko, II. eranskinean agertzen den eredu normalizatua emango da.

c) Nortasun Agiri Nazionala edo, hala badagokio, pasaporte edo nazionalitatea egiaztatzen duen edozein agiri. Aurkezten den dokumentuak indarrean egon beharko du.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Donostiako Udalaren webgunean eta KUPen argitaratzea.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote ebazpena eman duen organoari hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango dute Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Epe horiek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira. Hala ere, egoki iritzitako errekurtsoa jarri ahal izango da.

las funciones propias de la plaza, para lo que serán convocadas para realizar el reconocimiento médico.

b) Presentar la declaración jurada o promesa a la que se refiere la Base General 9.1.3., para cuya presentación se facilitará un modelo normalizado que consta como Anexo II.

c) El Documento Nacional de Identidad o, en su caso, el pasaporte o cualquier documento acreditativo de la nacionalidad. El documento que se presente deberá encontrarse en vigor.

Tercero.- Publicar la presente resolución en la página web del Ayuntamiento de San Sebastián y en la del PMD.

La presente resolución pone fin a la vía administrativa y las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses. Los plazos señalados computarán a partir del día siguiente al de su publicación. Todo ello sin perjuicio de la interposición del recurso que se estime conveniente.

Donostian, sinaduraren egunean.

KIROLETAKO UDAL PATRONATUKO KUDEATZAILEA
EL GERENTE DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES